

## IGERIKETA IKASTAROETAN IZENA EMATEKO ARAUTEGIA

Honako arautegi honek 2023-2024 denboraldian, 2023ko urritik 2024ko ekainera bitartean, igeriketa ikastaroetako izen-emateak arautzea du helburu nagusi.

### 1.- IKASTAROETAN IZEN-EMATEA BERRITZEKO ETA MAILAZ ALDATZEKO ARAUAK

Denboraldiko lehenengo hiruhilabeteetan (Urria-Abendua) eta gainerako hiruhilabeteetan (Urtarrila-Martxoa, Apirila-Ekaina) aurreko aldian izena emandako ikasleen berriztatzea edota ikastaroetan mailaz igarotzea baimenduko zaie ondorengo ikastaroetan.

- **URAREKIN LEHEN HARREMANAK (TXIKI 0, 1 eta 2, eta OINARRIZKOA 3)** ikastaroetan izena emandakoei. Kurtso hauetarako ordutegiaren erreserbarik gabeko berriztatzea baimentzen da baina ez da UMEEN IKASKUNTZA ikastaroetarako berriztapen hau baimentzen ezta mailaz pasatzeko tokirik erreserbatzen ere. Ikastaro hauetako berriztapenak ez dira automatikoak ezta hauek helbideratuak direnean ere.
- **UMEEN IKASKETA** ikastaroetan izena emandakoei (**Mantenimendua ez barne**), Hobekuntza izan ezik, azken honek ez baitu tokiaren erreserbarik baimentzen. Ikastaro hauetako berriztapenak ez dira automatikoak ezta hauek helbideratuak direnean ere.
- **3, ADINA HASTAPENA eta HELDUEN HASTAPENA** ikastaroetan izena emandakoei. Lehenengo hiruhilabeterako (Urria-Abendua) ikastaro hauetako berriztapenak ez dira automatikoak ezta hauek helbideratuak direnean ere. Urtarrilako eta Apirilako hiruhilabeterako helbideratuko inskripzioak berrizten dira automatikoki ikastaro eta maila berean. Baja zein maila aldaketa egin nahi baduzu, harreran kudeatu behar da.

Kasu guztietan berriztapenak hurrengo ezaugarrietara moldatuko dira:

- Ikastaroen arteko igarotzean lehentasunak soilik egutegi eta ordutegi berean burututako ikastaroentzat izango dira edo, hurrenez hurren, egokitzen zaizkionentzat. Umeen ikasketako larunbat eta igandetan erreserba soilik egutegiari dagokionean izango da, ez ordutegikoa.
- Salbuespen bezala 18:30-19:10 bitartean izena emanda zutenak eta umeen hobekuntza ikastaroetara igarotzen direnak beste edozein ordutegian izena eman dezakete, ez baita hobekuntza ikastarorik ordutegi horretan.
- Helduak Hastapena gainditu duten ikasleek, Helduak Hobekuntzarako toki erreserba behin bakarrik edukiko dute. Behin hobekuntza ikastaroa eginez gero, errepikatu nahi badu, inskripzio berri hartuko da.
- Hobekuntza ikastaroetan izena emandakoez ez dute egun hauetan tokirik berriztatzeke eskubiderik, inskripzio berri hartuko dira.
- Urarekin lehen harremanak (Txiki eta Oinarrizkoa 3) ikastaroetan izena emandakoez jarraitu behar dute 2.puntuari adierazitako prozedura Umeen Ikasketa ikastaroetara igarotzeko orduan.
- Ikasketa (Oinarrizkoa, Hastapena eta Hobekuntza) ikastaroetan izena emandakoez ez dute inolako lehentasunik Mantenimendu ikastaroetara igarotzeko orduan.

Berritzeko datak	Urria-Abendua 2023	Urtarrila-Martxoa 2024	Apirila-Ekaina 2024
Urarekin lehen harremanak	17/7 - 1/9	4/12 - 13/12	7/3 - 13/3
Umeen ikasketa	17/7 - 1/9	4/12 - 13/12	7/3 - 13/3
3. Adina Hastapena Helduak Hastapena	6/9 - 9/9	15/12 - 25/12	15/3 - 25/3

Urtarrilako eta Apirilako hiruhilabeterako berritzea baimenduko da hurrengo ikastaroetan. Ikastaro hauetan, helbideratuko inskripzioak berrizten dira automatikoki ikastaro eta maila berean. Baja zein aldaketa egin nahi baduzu, harreran kudeatu behar da.

- **UMEEN MANTENIMENDUA, HELDUEN MANTENIMENDUA, 3. ADINEKO MANTENIMENDUA, BIZKAR IGERIKETA, AQUAGYM, AQUABIKE ETA IGERIKETA BEREZIA,**

Berritzeko datak	Urria-Abendua 2023	Urtarrila-Martxoa 2024	Apirila-Ekaina 2024
Umeen Mantenimendua Helduen Mantenimendua-Master 3. Adineko Mantenimendua Bizkar Igeriketa Aquagym-Aquabike Igeriketa Berezia	-	15/12 - 25/12	15/3 - 25/3

## 2.- «URAREKIN LEHEN HARREMANAK» IKASTAROTIK (Oinarrizkoa 3) «UMEEN IGERIKETA» (Oinarrizkoa 4) IKASTARORA IGAROTZEA

«URAREKIN LEHEN HARREMANAK» (Oinarrizkoa 3) ikastaroetan izena emandakoak 4 eta 12 urte bitarteko «UMEEN IGERIKETA» (Oinarrizkoa 4) ikastaroetara igarotzeko, honako arau hauek jarraituko ditugu:

- Zozketa egingo da dagokien artean. Zozketarako izena eman behar da harreran.
- Talde honetako hitzorduak, zozketaren gainerako hitzorduak baino lehenago izango dira.

	Zozketarako izen-emateko epea. Izena eman ahal izateko ezinbestekoa izango da abonatu txartela izatea	Zozketa egin ondoren, egun horretan bertan eta arratsaldean argitaratuko dira hitzorduak kiroldegiko iragarki taulan eta <a href="http://www.basaurikirolak.eus">www.basaurikirolak.eus</a> webgunean.	Ziten ordutegiari jarraituz, izen-emate berriak egiten joan ahal izango dira ikastaroetan. Soilik zozketara aurkeztutako abonatu txartelean apuntatuko dira.
Urria-Abendua 2023	16/8 – 31/8	1 /9	Irailak 3, igandea 9:15etik aurrera.
Urtarrila-Martxoak 2024	4 - 13 /12	15 /12	Abenduak 17, igandea 9:15etik aurrera.
Apirila-Ekaina 2024	7 - 13 /3	15 /3	Martxoak 17, igandea 9:15etik aurrera.

## 3.- IKASLE BERRIEN IZEN-EMATEA

URAREKIN LEHEN HARREMANAK eta 4 eta 12 urte bitarteko UMEEN IKASKETA (Mantenimendua izan ezik) ikastaroetan ABONATUEN izen emate berriak, hurrengo arautegipean izango dira:

	Zozketarako izen emateko epea. Izena eman ahal izateko ezinbestekoa izango da abonatu txartela izatea	Zozketa. Kiroldagiko iragarki taulan eta <a href="http://www.basaurikirolak.eus">www.basaurikirolak.eus</a> webgunean, egun berean eta arratsaldean, ziten ordutegia plazaratuko da.	Ziten ordutegiari jarraituz, ikastaroetan izen emate berriak egiten joan ahal izango dira. Soilik zozketara aurkeztutako abonatu txartelean apuntatuko dira.
Urria-Abendua 2023	16/8 – 31/8	1 /9	Irailak 3, igandea 9:15etik aurrera.
Urtarrila-Martxoak 2024	4 - 13 /12	15 /12	Abenduak 17, igandea 9:15etik aurrera.
Apirila-Ekaina 2024	7 - 13 /3	15 /3	Martxoak 17, igandea 9:15etik aurrera.

UMEEN MANTENIMENDUA, HELDUAK IKASKETA, MANTENIMENDUA ETA MASTER, 3. ADINA IKASKETA ETA MANTENIMENDUA, BIZKAR IKASTAROAK, AQUAGYM, AQUABIKE ETA IGERIKETA BEREZIA eta, baita ere URAREKIN LEHEN HARREMANA (TXIKI 0, 1 eta 2 eta OINARRIZKOA 3) zein UMEEN IKASKETA (4-12 urte artean) ikastaroetako izen emateak zozketa ondoren egin beharreko izen emateak hurrengo egunetan izango dira:

	Urria-Abendua 2023	Urtarrila-Martxoak 2024	Apirila-Ekaina 2024
Abonatuak:	Irailaren 10etik aurrera	Abenduaren 26tik aurrera	Martxoaren 26tik aurrera
Gainerako inskripzioak:	Irailaren 12tik aurrera	Abenduaren 28tik aurrera	Martxoaren 28tik aurrera

Egutegi hau inskripzioak ordutegiz aldatetarako kontuan izango da.

## 4.- ITZULPENAK

Ikastaroak hasi eta gero, ez da dirurik itzuliko.

## 5.- GAIXOTASUNAK, GABEZIAK ETA BESTELAKO KASU BEREZIAK

Ezintasunen bat izatekotan edo gaixorik egotekotan –horrek ikastaroaren martxa eragotzi dezakeelarik-, izena eman aurretik, kiroldegiko langileei kontsulta egitea gomendatzen da, ikastaroa egiteko aukerarik dagoen edo ez zehazteko. Kasu hauetan, nahita nahiez, izena ematerakoan horren berri eman behar da.

KUE-k gaitasuna izango du ikaslearen inskripzioa bertan behera uzteko, eskatzailea ikastaroan aritzeko moduan ez dagoela baloratzen badu.